

SALBUESPENAK ETA HAIEN ZERGATIAK

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1) Erakunde publiko baten esku utzitako ondasun higiezin bat izatea, haren helburuen artean egonik ondasun higiezinak errentan ematea. (BIZIGUNE).	Gozameneko lagapen kontratua, urtarrilaren 1en aurretik sinaturik eta indarrean edo uneko urtean
2) Errentan ematen diren etxebizitzak. Halaber, salbuetsita egongo dira 6 hilean, behintzat urte barruan, alokatutako etxebizitzak. Ez ditugu onartuko doako Lagapenak, ezta prezio sinbolikoak dituztenak ere. Kontratuen berri emango diote Foru Ogasunari, jakin dezan.	Indarrean dagoen alokairu kontratuaren kopia. Hor jasota egon behar da bizitzeko erabiltzen dutela.
3) Herentzia baten ondorioz lortutakoak. Salbuespen hori bi urterako izango da eta hiltzen den egunetik hasiko da kontatzen.	Heriotza-ziurtagiriaren fotokopia
4) Ostatu emate, pentsio eta ostatu jardueretarako direnak eta udal lizentzia dutenak.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz
5) Hirugarren adinekoentzako Zahar Etxeetan erroldatutako pertsonen dagokienean etxebizitzaren titulartasuna. Etxebizitza bakar bat salbuetsiko da, erroldan agertzen den azkena. Salbuespenak bi urterako izango da, zaharren egoitzan erroldatzen denegunetik hasita.	Egoitzaren ziurtagiria, zein egunetan sartu den esaten.
6) Antolamendutik kanpo daudenak, hondamendi deklaraturakoak edo hirigintza kudeaketari lotuak.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz
7) Ohiko bizileku ez direnak, Udalak berak hartutako erabaki baten ondorioz.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz
8) Merkataritza edo zerbitzu jardueretarako erabiltzen diren etxebizitzak eta udal lizentzia dutenak.	Udalak berak egiaztatuko du hori, ofizioz
9) Nekazaritza eta abelazkuntzako jarduera edo ustiapenentarako erabiltzen direnak, betiere Foru Aldundiaren Nekazaritza sailen ustiapen zentsuan erregistratuta badaude.	Foru Aldundiaren Nekazaritza eta abelazkuntzako ziurtagiria edo zentsuan erregistratu egotea kreditatzen duen beste edozein agiri.
10) Elkarteei kultura jarduerak egiteko erabiltzen direnak.	Elkarteen estatutuen fotokopia eta jardueren azalpena.

SALBUESPENAK ETA HAIEN ZERGATIAK

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

11) Aurreko urtean erositako etxebizitzak, urtarrilaren 1ean udal lizentzia dutenak eta obretan daudenak.	Eskritura publikoen eta udal baimenaren fotokopiak.
12) Aurreko urtean erosi izan direnak eta urtarrilaren 1ean ohiko bizileku ez direnak, etxebizitza hori erosi denetik kontaktzen hasita hiru hileko epean ohiko bizileku izatera pasatzen bada. (erroldatzea)	Eskritura publikoaren fotokopia eta udal erroldaren ziurtagiria.
13) Etxebizitza taldeen kasuan, salbuetsita egongo dira taldea osatzen dutenak eta taldean sartzeko tramitea hasi dutenak aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen. Taldea bukatuta egon behar da uneko urteko abenduaren 31 baino lehen.	Batuketa-eskritura publikoaren fotokopia eta tramiteak hasita daudela esaten duen agiria.